

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 415/2022 Erabakia, uztailaren 5koa. Onartzea Kontseiluaren azaroaren 23ko 722/2021 Erabakiaren bidez emandako dirulaguntzaren 2021eko urtekoari buruzko justifikazio dokumentazioa**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 23ko 157/2021 Erabakiaren bidez, jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko 2021-2022ko laguntza lerroen deialdia onetsi zen. Ebazpen horren bederatzigarren apartatuan ezartzen zen frogagiriak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar zirela.

Azaroaren 23ko 722/2021 Erabakiaren bidez laguntzak ebatzi ziren, eta ebazpen horretan 19.286,87 euro eman zitzaizkion Urturiko Administrazio Batzarrari "Urturiko Administrazio Batzarrerako partekatutako autokontsumo instalaziorako", horietatik 7.714,75 euro 2021eko urteari zegokion, eta 11.572,12 euro 2022ko urteari.

Azaroaren 23ko 722/2021 Erabakiaren zazpigarren apartatuan, 2021eko abenduaren 30a ezarri zen 2021eko urteari dagokion justifikazio dokumentazioa aurkezteko gehieneko epe gisa.

Urturiko Administrazio Batzarrak, 2021eko abenduaren 29an, dagokion epearen barruan, 2021eko urterokoaren justifikazioa aurkeztu zuen Erregistro Telematikoaren bidez (erregistro zenbakia: 202190000083561), Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabili beharrean.

Geroago, 2022ko martxoaren 17an, aipatutako erakundeak idazki bat aurkeztu zuen, egoitza elektronikoaren eta erregistro elektroniko komunaren arteko nahasmena adieraziz, eta 2021eko urterokoari zegokion zenbatekoa ordaintzeko eskatu zuen.

Hortaz, bidezkoa da:

1. Urturiko Administrazio Batzarrak 2021erako aurkeztutako justifikazio agiriak onestea.

Ekintzaren aurrekontua, BEZ barne	48.217,17 euro
Dirulaguntzaren ehuneko, gehienez	Ehuneko 40
Emandako dirulaguntza, guztira	19.286,87 euro
2021eko urterokoan emandako dirulaguntza	7.714,75 euro
2022ko urterokoan emandako dirulaguntza	11.572,12 euro
Fakturretan justifikatutako aurrekontua 2021ean	19.287,27 euro
2021ean ordaindu beharreko dirulaguntza	7.714,75 euro
Justifikatu gabeko ordainketak	0,00 euro

2. 9. oinarri arautzailearekin bat etorritik, bidezkoa da 2021eko urteari dagokion 7.714,75 euroko dirulaguntza ordaintzea, erakunde onuradunak oinarrien II. eranskinean zehazten den dokumentazioa aurkeztu ondoren (fakturak, ziurtagiriak, dirulaguntzen aitortpena eta aldi bereko diru sarreraren aitortpena, etab.).

Beraz, 7.714,75 euro esleitu behar zaizkio Urturiko Administrazio Batzarrari, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako aurrekontuko "Efizientzia energetikorako dirulaguntzak" 60205. G/456600/76290604 partidaren kontura.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe:

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2021eko urterokoaren justifikazioa, Urturiko Administrazio Batzarrak 2021eko urterokorako eskatutako jasangarritasun energetikoko ekintzak bultzatzeko laguntza le-  
rroari dagokiona (P-01.001.84A), 7.714,75 euro kontsignatuz Urturikoko Administrazio Batzarraren  
alde, Arabako Foru Aldundiaren 2022ko ekitaldirako aurrekontuko 60205. G/456600/76290604  
aurrekontu partidaren kargura.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka adminis-  
trazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko  
auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko  
29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 5a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**

*Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria*

**NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA**